

# Artxibo kulturak, bidean den proiektu bat

*Artxibo kulturak* Fundació Antoni Tàpies-en sortu zen 2000ko udazkenean.

Erakusketa euskarri eta muntaia gisa, halako ukitu historiografiko bat du. Ukitu horren eraginez, irudiak eta testuak antolatzen dituzten sistemetako askok sorburu komuna partekatzen dute. Izan ere, oroimenaren antzerki eta jauregi erre-nazentistek, bitxikeria kabinetek, lehen-biziko erakusketa zientifikoek, lehenbiziko areto fotografikoek, propagandazko erakusketek eta holokaustoaren irudikapen hurbilekoek (are zapalkuntzarekin lotutako beste tragedia batzuek ere) etengabe gurutzatzen dute artxiboaren eta erakusketaren artean dagoen lerroa. Dena den, abiapuntua ez dute hainbeste sorburu edo genealogia horretan, baizik eta XX. mendeko artista eta narratzaileek artxiboetan izan dituzten esku-hartzeetan, eta informazioa biltzeko, oroimena eraikitzeko eta errealitatea antolatzeko moduaren inguruan lan horiek egin duten argian; izan ere, modu horrexek markatu du, eta markatzen jarraitzen du, gure kultur eta gizarte eremu osoa.



Bere edizioetan, proiektuak hainbat alderdi jorratu ditu, bai bere atariaren, erakusketen edo argitalpenen bitartez bai lantegi, mintegi eta hitzaldien bitartez. Proiektuko material eta edizio bakoitza aurkezteko unean izan diren testuek argi eta garbi dokumentatzen dute aztergai- eta prozesu-amalgama hau. Azken horiek guztiek, *Artxibo kulturak*-en elkarrekin direla, lagundu egiten dute proiektuak gaiaren beraren erdigunetik definitu nahi duen *artxibo kultura* hori zer den zehazten; hau da, proiektuak ez du kanpo definizio edo iruzkinik egin nahi, baizik eta zuzenean kultura horren zati izan, kultura horrekin jardun, eta kultura horretan sartu, berorren beste agente bat balitz bezala:

“Famili albuma barne-oroimenaren edukiontzi gisa; artxibo historiko, antropologiko, etnologiko, zientifiko, errepresiboa edo poliziala; museoak agiriaren xede publikotzat dituen maila desberdinak; irudiz artxibatzeak grina pribatua; nazio eta/edo etnologi identitateak bere objektu, paisaia edo norbanakoen identifikazioaz eraikitzea; egiaren eta fikzio dokumentalaren arteko tentsioa, artxiboaren eta erakusketaren artekoa, dokumentuaren erabileraren eta gehiegizko erabileraren artekoa; artxibo eta dokumentu egiturak estetika eta sorkuntza garaikidearen gainean dituen ondorio ikonografiko eta kontzeptualak; ohitura taxonomikoaren halako zentzugabekeria batzuk; oroimenaren artearen adar garaikideak; irudi eta testu antolaketak katalogatzeko eta, aldi berean, irudikatzen duten errealitatea eraikitzeko duten gaitasuna... kontzeptu eta jakinduria arlo horietako bakoitza “Artxibo kultura” horren zati bat da, hain zuen kultura horrek berak eskaintzen dituen kode ikonografiko eta erakusketa-egiturak baliaturik lan honek definitu nahi duen horrexena”.

*Artxibo kulturak* libururako sarrera



Montserrat Soto


“Identitate bat kasuak bilduz eta sailkatuz eraikitzeak duen alderdi perbertsoa, batzuetan, edo traumak zatitutako identitatea berreraikitze beharrezko prozesu terapeutikoa, beste batzuetan; irudikapena eta honek, unean uneko poetika eta politika nagusien arabera errealitatea bera antolatuz, kontrolatuz eta itxuratuz, errealitateari buruzko ikuspegiak eraikitze duen ahalmena; dokumentuak aura bat bereganatzeko eta honen atzean bere jatorrizko erabilgarritasuna ezkutatzeko duen erraztasuna; irudi fotografiko eta dokumentazio propioaren kudeaketa pribatuaren analisia hainbat giza jarduera aztertze moduz; berria erregistratzea, ezinbesteko urratz gisa, obra edo asmakizun bat jenial eta bakartzat goraiatzeko, garatzen den modernitatearen eremua dena dela; artetzat sortu ez ziren erregistro, irudi, metaketa eta bildumetan praktika artistikoak behatzeko eta identifikatzeko uneko tentsioa; bere garaian —lan honetatik edizio, argitalpen, pauso edo prozesu bakoitzean definitu nahi den artxibo kultura horrek bere aztarna utzia duen garai horren— isla besterik izan ez daitezkeen praktika artistikoetan ikerlariaren eta artxibozainaren erudia sartu den modua...”

*Artxibo kulturak* liburuaren 2. alerako sarrera.

*Artxibo kulturak*, 2002az geroztik, hainbat lantegi egiten ari da, izen beraren pean eskaintzen baitituartzeko Bartzelonako Arkitekturako Goi Mailako Eskolan (ETSAB, UPC). Lantegi horiek proiektuaren erdigunean daude, ez dira erakusketamuntaiak edo artxibo-espazioak bezain ikusgarriak, baina honen guztiaren funtsezko zatitzat nabarmendu behar diren aurkikuntzak eta lan-espazioak sortarazten dituzte. Lantegien abiapuntua printzipio simple bat da: lantegiak egiten diren hiriko dokumentu-funtsetara jo behar da, aurrez erabakitako kultur diskurtso baterako ilustrazio iturri edo aitzakia gisa erabiltzeki; aitzitik, lantegi horietatik ateratzen diren proposamenen aitzakiak, aurkitzen diren dokumentu multzo horietatik dira, hain justu ere, eta multzo horiek beroiek

kontatzen dutena, artxibo osoaren barnean sistematizatuta, etiketatuta eta antolatuta dauden moduarekin batera.

Besteak beste, 2003an Arxiu Municipal del Districte de Sants (Bartzelona) delakoarekiko lankidetzan antolatutako lantegia aipatu beharko genuke. Artxibo horren interesgune nagusia bertako argazki-funtsa da. Sants-eko irudiz osatu funts historiko bat da, ia-ia argazkiaren hastapenetik aurrerakoa. Bere ezaugarri nagusia erakundeak sortua ez izana da; Sants-eko Txango Elkartetik heldu da, inguruko bizilagunengandik, urteetan zehar arduratu baitziren irudi horiek biltzen, datatzen eta antolatzen, harik eta funtsa handiegi egin zitzaizen arte. Une horretan akordio bat egin zuten Arxiu-rekin, bertan uzteko. Irudien antolaketa bere garaian bizilagunek eman zieten berbera da, eta neurri handi batean inguru horretako biztanleak dira, gaur egun ere, funtsaren eta iristen diren elementu berrien kontserbazio eta antolaketa lanetan ari direnak. *Artxibo kulturak*-entzat ezinbestekoa zen mota honetako kasu bat jasotzea, ezen badirudi erakunde publiko bat eta auzo-ekimen bat ezin hobeto egokitzen zaizkiola elkarri. Osterantzean, kontuan izan behar da portuko eta Eremu Frankoko hainbat inguru Sants-enak direla, honen hondartzak baitziren, eta baita Bartzelonako geografiaren konplexutasun handiko lurraldea den Can Tunis ere. Inguru bateko bizilagunek berek egindako zona horrexen artxibo-irudikapena ikusi ahal izate hutsa pauso izugarri interesgarria zen, berez. Lantalde batzuek, hain zuzen ere, langaitzat hartu zuten “Playas” izeneko atalean bildutako lehenbiziko argazkiak —XIX. mendearen amaierakoak eta XX.eko hasierakoak— ikuspegi erromantikoak izatea eta horietan txalupa, etxea eta olatua gai errepikatuak izatea; krono-logikoki hurrenak Gerra Zibilaren garaiko argazkiak izatea —hauetako gehienak airetiko ikuspegiak dira—; eta “Playas” izeneko atal hau zuri-beltzezko famili argazkiez amaitzea, otordua eta baloia irudi-



*Artxibo kulturak IV: irudikapenak (Gaztela eta Leongo Junta, 2004)*  
*Technologies To The People, Bideo bilduma*

an, kameraren aurreko posean zirela. Garai horretatik aurrera, ezer ez. Ez dago zona horren gaur egungo irudirik, begi-bistako arrazoiak direla eta auto-irudikapenari uko egin dion inguru bat baita.

Ahal den neurrian, ahalegina egiten da lantegien emaitzak euskarri bat izan dezan, lankide den artxiboan kopia bat uzteko moduko bat, bertako ondare dokumentalaren gaineko begirada hori erabilgarri egon dadin, alegia, etorkizunean izan daitezkeen erabiltzaileen-tzat ere bai.

*Artxibo kulturak*-en zerbait egin bada, hau izan da, oso joera politiko desberdinak eta oso egitura intelektual desberdinak dituzten erakundeekiko harremanak finkatzea. Ildo horretatik, proiektua lanabes bat izan da bertan lan egiten dugunontzat eta berarekin lankidetzan ari diren erakunde eta artxiboentzat; egoera-katalizatzaile bat izan da, ezen egoera horietan erakundeak, profesionalak, artistak eta beste batzuk elkartu egiten dira, *Artxibo kulturaren* definizio bat emateko, bilaketa amaigabe horretan.

Proiektuaren erakusketa-zatian argitara ateratzen diren dokumentu-funtsekiko hurbilketa, “paretara” eramaten dira bere baitan, denboran zehar era batera edo bestera kontserbatu eta antolatu dituztelako, dagoeneko diskurtso sendo bat duten multzoak. Beste erakusketa mota batzuetan ikusgai jartzen dituztenean, diskurtso historiko edo pedagogikoak osatzeko ekitaldietan dokumentuetako batek izan dezakeen esangura indibidualagatik izaten da. *Artxibo kulturak*-ek horiek erakusten dituztenean, denboran zehar irudiak eta testuak antolatzeko izan diren moduak harremanean jarri nahi ditu, poetika eta politika desberdinetan oinarrituta baitaude, eta beste dokumental multzo batzuekin batera erakusten ditu, gizakiaren eta gizakiaren gizartearen “artxibo” joera horren epidermis bat osatzeko.

Proiektutik beti azpimarratzen da materialari buruzko ikerlanen autoretza, hau da, *Artxibo kulturak*-ek kontzeptu-testuinguru bat eskaintzen du artxibozainek eta hainbat adarretako profesionalak urte askoan zehar ikertutako materialak erakusteko; eta aipatu horiexena da material hori mantendu eta aztertu izanaren eta lan hori proiektuarekin partekatze hartutako erabakiaren meritua. Eta elkartruke horretan *Artxibo kulturak* lanerako esparrutzat ageri da, inoiz ez besteren lan intelektualaz jabetzeko zein lan hori aurkitzeko espaziotzat. Ahal den neurrian, dokumentuak lagatzen dituzten erakundeekiko eta dokumentu horiekin lan egiten duenarekiko harreman posible oro hitzarmen tazitu honen mendean dago, eta hitzarmen honek ikusgarritasuna eskaintzen die, testuinguru berri batean, normalean beste bide batzuk jorratuz mugitzen diren lanei. Espazio bat eskaintzen da, hain zuzen ikerlari eta kudeatzaileek dagoeneko eginak dituzten —eta proiektuaren interesekin bat datozen— baina normalean ohiko erakusketetan ikusgai jartzea zaila den irakurketak argitara atera ahal izateko.

Lan hori guztia, bere bost urteko bidean zehar, eredu, baliabide edo lanabes bihurtu da, eta posible denaren espazio bat eraikitze hori du ezaugarritzat. Proiektuak, bere *curator* alderdirik nabarmenenean, edizio bakoitzean proiektuan sartzen diren artistekin ezarri nahi izaten duen harremana horixe da, eta saiatzen da horiekiko harremana, “autore artxi-boen” sortzaileekiko harremana, artxibo horiek kokatu ahal izateko eremu baten eraikuntzatik abia dadin, hain zuzen eremu horretan sendotu edo modelatu ahal izan daitezen, “autore artxibo” batek dituen oinarri politiko eta poetikoen oso bestelako batzuen ildotik —nahiz horiekin ezinbestean loturik— itxuratutako dokumentu multzoekiko harremanean. Horrela gehitu egiten zaizkio, beste elementu baten antzera, berak ere parte diren *artxibo kultura* horren definizioari. Horrelaxe gauzatu da behintzat lankidetzan, besteak beste, Pedro G. Romero-ren Archivo F.X., Technologies To The People (Photo-collection eta Video-collection) eta Nomedan eta Gediminas Urbonas-ekin (Trasaction project).

Valladolideko Errege Kantzelaritzako Artxiboarekiko lankidetzaren kasu zehatza argigarria izan daiteke, proiektuak lankidetzan jorratzen duen erakundeekin finkatzen duen harreman motari dagokionez; eta argitu dezake, halaber, proiektua nola den gai funtsei buruzko zenbait irakurketari euskarria emateko, funts hauekin lanean ari direnen gogoan egon arren irakurketa hauei oso zaila litzaiekeen kultur ekitaldi ohikoagoetan erakusketa eta argitalpen testuinguru bat aurkitzea. Valladolideko Errege Kantzelaritzaren Artxiboaren historia erraz eskura daiteke hainbat argitalpenen bidez edo bere web orrira joz; beraz, ez dugu horretan zertan geldialdirik egin. Jakin beharrekoa da, ordea, bere garaian erakunde juridiko eta aktibo baten artxiboa zela, auzitegi batena alegia; beraz, orain eskuartean duguna beste garai batean peritugiriak zirenen patrimonializazioa da. Artxiboaren barnean funts harrigarri samar bat bada, olio-pinturak eta marrazkiak. Funts hori, zenbait unetan, oso arrisku larrian egon da, eta gaur egun Artxiboko lantaldeak kontserbatzea eta zaharberitzea lortu du. Olio-pinturak, zerbaitengatik auzi bidean zeuden lurralde eremuen irudikapenak, irudikapen geografikoak dira, eta alderdi baten edo bestearen arrazoiaren erakusgarri erabiltzen zituzten, hau da, dokumentu edo frogak dira, 2x2 metrokoak batzuk, margotuak, eta artxiboan dagokien auzia dute lagun; eta honetan, besteak beste pinturaren beraren egiazkotasuna epaitzen zen. Material hori hainbat modutan erakutsi dute beste testuinguru batzuetan, eta sarritan Estatuko geografi inguru edo erregio batzuei buruzko erakusketa edo edizioetan erabili dute, horien beste irudikapen bat balitz bezala.

Baina irudien edo irudi multzo antolatuen azterketaren ikuspegitik, begi-bistakoa da funts horrek, berez, kalkulatu ezin dako interesa duela: geografia baten irudikapen judizialak olio-pinturaz eginak, pinturazko frogak, irudikatutako errealtatearen gaineko begirada gidatzeko unean pintzela baliatzen jakiteak moldatutako agiriak, eta hori guztia funts batean antolaturik, kasuan kasuko azalpen idatziez. Dokumentua eta bere ziurtagiria alegia.

Ez dugu baztertu behar proiektuaren lau erakusketa-edizioetan eta egin diren argitalpenetan Espainiako Gerra Zibilaren Artxibo Orokorren lankidetzan ere izan dela. Ez da lankidetzan apal bat izan, zeren eta proiektuari erakustearren lagatutako dokumentu pila handia baita, eta handia izan da

gainera edizio guztietan. Kontuan izan behar dira, halaber, lehen edizioaren data (2000, Fundació Antoni Tàpies) eta azkenarena (2005, Gaztela eta Leongo Junta). Bi horiek bat datoz bere garaian gudaroste “nazionalak” —edo diktaduran zehar— konfiskatu eta Brigada Politiko Sozialak edo Masoneria eta Komunismoaren Errepresiorako Auzitegi Bereziak kontrol eta zapalkuntza eginkizunetarako erabili zituzten dokumentuen erreklamazioarekin lotutako azken bi krisialdi garrantzitsuekin. Egin diren edizioen artxibo-espazioetan sartutako dokumentuen iturriak, besteak beste honakoak izan dira: sail Politiko-Sozialeko Argazkiak, PS-Bartzelona Generalitat, PS-Generalitat, PS-Santander, PS-Madril, Sekzio Berezia edo Masoneria, Teosofia Sekzioa, etab. Multzo edo dokumentu bakoitzaren azterketa zehatzetik haratago joz, edo dokumentazio hori artxibo-espazioetan agertzearen arrazoia dena delarik —funtsean beste edozein kasutako berbera baita, bere diskurtso propio sendoa alegia—, mota honetako legatu batekin aritu eta gero kontu bat garbi geratu da: modu tragikoan sortzen den dokumentu multzo ororentzat komuna den zigorraz markaturiko ondarea da ezen, batera edo bestera, sinbolo bihurtuko da, egiaz badenaren miniatura historikoa izango da, eta idolatratu egingo dute, eta halaz galdu egingo ditu jakintzarako lanabes izateko aukera guztiak. ❧

JORGE BLASCO GALLARDO komisario independente eta Katalunyak Unibertsitate Politeknikoko ikertzailea da. *Artxibo kulturak*, [www.culturasdearchivo.org](http://www.culturasdearchivo.org) proiektuaren egilea da.